

Foru Aldundiak Maroñoko urtegiaren urbazterreko ingurunea lehengoratzeko obrak adjudikatu ditu

Begiratokiaren eremua eta Letobarri parkera joateko oinezkoentzako zidorra lehengoratzeko dira esku hartzeari esker

Gasteiz, 2023ko abuztuaren 21. Foru Aldundiak onespena eman dio Maroñoko urtegiaren urbazterreko ingurunea egokitzeko eta ingurumen aldetik lehengoratzeko obrak Euroservicios y Obras Forestales SA enpresari adjudikatzeari.

Begiratokiaren eremua eta Letobarri parkera joateko oinezkoentzako zidorra lehengoratzeko dira esku hartzeari esker. Diseinatutako esku hartzearen helburua da ingurune horren guztiaren paisaia baldintzak hobetzea.

Hauek dira egin nahi diren lanak, besteak beste: hondakinak eta isurketak kendu, saneatzeko tratamenduak egin eta urbazterreko landaredia hobetu, landare lurra eman substratu eskaseko eremuetan, eta ereiteak eta zuhaitz eta zuhaixka autoktonoen landaketak egin iragazki berderako urbazterreko zerrendetan eta babes itxituretan.

Lan horiek egiteko aurrekontua 128.496,62 euro da, BEZa barne, eta, epea, hiru hilabete.

Arabako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak Aiaraldeko Berehalako Jarduera Planean jasotako "Ingurumena eta mugikortasun jasangarria" proiektuaren esparruan 2022ko abenduan sinatutako lankidetzaren hitzarmenean aurreikusitako ekintzen barruan sartzen da jarduera hori.

Jarduera berri hori beste jarduketa bati batzen zaio, alegia, urtegiaren isatsean hondakinak eta isurketak kentzeko, saneatzeko tratamenduak egiteko eta urbazterreko zerrendetan eta babes itxituretan iragazki berderako urbazterreko landaredia eta zuhaixka autoktonoak hobetzeko adjudikatutako jarduketari.

Amaia Barredo Jasangarritasun, Nekazaritza eta Natura Ingurunearen Saileko diputatuaren esanetan, "*Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko lankidetzari esker, Aiaraldean konektibitatea, mugikortasun jasangarria eta erabilera publikoa hobetuko duten hainbat jarduera abian jar daitezten bultzatzen ari gara*".

Barredoren arabera, "*Maroñoko urtegiaren urbazterreko ingurunea egokitzeko eta ingurumen aldetik lehengoratzeko esku hartze honek aukera emango digu inguruak Aiarako bihotzean aisialdirako duen erakargarritasuna handitzeko*".

Foru arduradunaren iritziz, "*ingurumen egokia izaten eta klima aldaketaren aurka borrokatzen laguntzeko bi erakundearen programa eta neurrietan gauzatu diren alde aurreko politikei esker lortu da akordio hau*". Hitzarmen horren oinarrian dago baliabide natural guztien erabilera arrazionala zaintzea, bizi kalitatea babestu eta hobetzeko, eta ingurumena defendatu eta lehengoratzeko", gaineratu du.